

EUSKAL-TESTAMENTUA



(PASAI SAN JUAN-GO ESKOLA MAISU OTAEGI-TAR ON JOSÉ JOAKIN
JAUN ARGIDOTAR, KARLOS IRUGARRENAREN GUTZEAREKIN EGIN DUTEN
EGUNAREN OROIPENEAN)

Sta in testamento tuo, et in illo colloquere.
Euts zere gogomenari, ta mintza.
(Eccles. cap. XI, v. 21.)

Errota laño geldi
Gošoetan goizian
Egoten dan gisara,
Oatz biguñian
Aitoncho bat daukagu,
Baserri batian,
Churi-usaya daiyen¹
Izara tartian.

Urteaken poderez
Odolak uurtua,
Belaun-gozua, juana,
Pultsua, aitua,
Begiak lausotuak
Ozt-ozta goortua...
Baña espiritua...
¡Zer espiritua!

Egun batez, zaar ondo
Ikusiyen tronu
Orretatik illoba
Bateri agindu
Ziyon, etor zedilla,
Zerengatik kontu
Bat esan nai ziyola,
Ta zezan aditu.

Jarririkan arako
Intsus-lore-pilla
Zirudiyen aitoncho
Ura eseriya,
Asi zuen oyetik
Bere itz-aldiya
Esanaz:—maitechua,
Ni juan naiz iya.

(1) De *dariyen*, por *darijoen*, en vez de *dariyoten*.

Baña, urte asko ta
Berak alakuak,
Iragotzia nairik
Gure Jaungoikuak,
Zerbait ikusi izan det
Eta, zaartzaruak,
Maite, begiyen toki
Ditu eskarmentuak.

Urtien eskolan, ta,
Esperientziyak,
Duen maisutegiyan
Ondo ikasiyak
Nai aldituzu jakiñ,
Nere igerriyak?
Ara: eta gašorrek
Jarri belarriyak.

Egingo zeradena,
Iya egin zera,
Eta, etziñadena,
Juanik izatera,
Oi-ezko gauz-tegiyan
Zuaz arkitzera
Orduko nuakizu
Leziyatutzera.

Lenen lenengo lana,
Maitatu echia,
Ichekoya izatian
Dago birtutia,
Maita zaartuak, eta
Maita emaztia,
Bestela zaartzian nork
Naizu maitatzia?

Ikasi al añian
Churren chur pasatzen,
Egun on batek lau chaar
Ditu ta ekartzen,
Alchatu: idukiyak
Ez du ezer galtzen,
Zenbat zintzore ez dira
Besterenen bartzen?

Superkoyak,¹ jantako
Arbolen biziya
Da leyatik datorren
Irabaz guziya,
Zerengatik apuko,
Ez bai ta auziya
Diran gorroto eta
Galeren aziya.

Ez egiñ ametsikan,
Zeren... onlakuak
Diran esna-osteko
Pena ta damuak,
Nai dituzu izate
Kezka gabekuak?
Lanian saya zintzo
Laja itsasuak.

Alperrik dira iñtillu
Laazka ta negarrak
Estuasun, larritze,
Katazka ta abarrak
Ez du ezer esan nai
Indarrak bakarrak
Ezer ere ez dezake
Besuen indarrak.

(1) Sagar adarrak eta zulatzen dituen ar lodi bati, Oyarzun aldian ematen di-yoten izena.

Urteetako lanak
 Minuto bat barren,
 Denak geldi litezke
 Deus ez bezelaſen.
 Ez dakigu buruko
 Miñ bat igestutzen
 Eta... zer geran, zeñen
 Gichi pentsatzen den!

Gauza guziyen gañez
 Beti begirozu,
 Goizik errezo bage,
 Lanera etzazu,
 Egun artian ere,
 Erreza ezazu,
 Luak artzia bera
 Ortan egin zazu.

Jayak santu egitzu
 Ez astiak jaitu,
 Bada ziertze onek
 Oker asko ditu,
 Jayeko langilliak
 Beti izerditu
 Eta ezin du zor bat
 Beñere garbitu.

Munduratu añian
 Juain zera ikusten,
 Nola guraso asko...
 Ala ez tiraden;
 Zergatik... jakiña da,
 Familiya azitzen
 Jardun bear lekuan
 Choraiškak diraden.

Egitiak, oiturak...
 Berriya guziya,

Izketa... politika
 Eta erausiya,
 Erlijiyoy... gustoko
 Gustoko aisiya,
 ¡Jauna! ondo-duna al da
 Gure mišeriya?

Aisakeri leun bat
 Nai da egunian,
 Baña, erlijiyua
 Bere belaunian
 Ezdaguen lekuan
 Aurreratu alian
 Naspiltzen dira gauzak
 Naspillen gañian.

Ichiak zimenduak
 Lurrian bezela,
 Jendiak *Dotriñian*
 Iduki dezala,
 Gaztia kristau sendo
 Azi deriyola,
 Bestela, kontu egiñ
 Mundua juan dala.

Ai nere illobacho
 Samur ta laztana
 Askoy, ta... ezer ez dala
 Kontu, esan dana,
 Bada aiñ aunditza daukat
 Esain nukiena
 Non... oroitzia bera
 Dan penaren pena.

.

Igerriko diyozu
Nere biyotzeko
Maitia lurretikan
Diferentzi asko
Dagoela lurrera
Berdiña izateko,
Jayera eta frutu
Berdiña emateko.

Euskerazko oitura
Bizi eta griña
Euskerak berak berak
Moldatu ta egiña,
Uzten, uzten ta aazten
Dijua, ¡jakiña!
Ez gera bada mintzo
Erdera gordiña?

Gure on-zale eta
On iraute dena,
Euskarari zor zayo,
Ez da besterena,
Ken au, ta egundaño
Dan aguruena
Ikusiko da zer dan
Euskalduna zena.

Euskaldunak geraño,
Gara iñorkoyenak,
Eramaneko, umill,
Ta onik onenak,
Euskarak gaukazki, bai,
Beintzat berešenak
Eleizaren seme ta
Jaungoikozkuenak.

Esku kendutakuaz
Orritutzen gara,

Zergatik, baldiñ maite
Badegu erdara?
Gure galdutakuak
Bill zale bagara,
Erderari laja, ta,
Mintz-zagun Euskara.

Euskarak berak dakar
Bere barrenian
Galduekiko griña,
Eta iraunian
Oyek etorko dira,
Gauden gu oñian,
Mintzatuaz Aitorren
Izkera ederrian.

Dirau, Euskarak, eta
Ona Euskal-erriya.
Gal bedi, eta, non da
Erdal –mugarriya?
Gal bedi, bai, gal bedi
Ta... agur istoriya
Aritz, fuero, gurutze
Ta... izate guziya.

.
.
.

¡O nere biyotzeko
Illoba maitia!
Zer poza ori dena
Zuri esatia!
Eriyotza datorkit,
Baña ez tristia,
Jakiñik zaitudala
Nere oñordia.

¡Ai bazenekizuke,
Biyotzeko aurra,

Zezen poza daramadan
Lurretik zerura...
Izan zaite euskaldun
Ta nere modura
Etorko zera zure
Azkeneko ordura!

Zaude: atoz onontzik,
Ejenplo osua,
Ar dezazu, sortzetik
Iltzerañokua;
Ekatzu musucho bat,
¡Ai, azkenekua!
Jaunak egiñ zaitzala
Zori onekua.

Begira, neri ill ta
Lurra ematian,
Para aritz-ayaška
Chiki bat gañian,
Eta, zure aitonaz

Oroi zeranian,
Erreza; baña, gure
Izkuntz kutunian.

Leziyo oik umetan
Ikasi ditzaten
Urte bat ta bestian
Beti erakusten
Aritu dan maisua,
Lanik saritutzen
Bada, zer sari-gairen
Diñatuko etzen?

Euskal-erri poztuak
Bekiyo nerekiñ,
Jaun aundiya eziñ nik
Pagatu deusekiñ:
Baña, opatzen diyot
Biyotz danarekin
Zori geitu dedilla
Gaur daukanarekiñ.

MIGEL A. IÑARRA-K.

